

Lárruak
eta izurrák

Nora Aurrekoetxea
June Crespo
Yael Davids
Iman Issa
Sahatsa Jauregi•Tripak
Kimia Kamvari
Lúcia Koch

Larruak eta izurrak erakusketa, Laura Vallés Vilchezek komisariatua, Eduardo Chillidaren mendeurrena ospatzen den urte honetarako Tabakalerak antolatu dituen hiru erakusketetatik lehena da. Ekimen horiek eskultore handiaren ondarearen gaineko begirada desberdinak eskaini nahi dituzte, baita eskultura garaikidean egun agertzen diren tokian tokiko eta nazioarteko posizionamenduen inguruan ere.

Lehenengo erakusketa honek euskal eskulturaren belaunaldi berri bati eskaintzen dio arreta, Sahatsa Jauregi, June Crespo, Kimia Kamvari eta Nora Aurrekoetxearen obraren bitartez. Artista horiek oihartzuna izaten ari dira nazioartean lantzen duten hizkuntza bisual propio eta bereizgarriari esker. Euren tokiko ikuspuntuak hainbat testuingurutako ikuspegi artistikoekin elkartzen dituzte, besteak beste Yael Davids, Iman Issa eta Lúcia Kochek eskaintzen dituztenekin.

Guztiak nabarmentzen dira materia eta espazioa lantzeko modu bereziarengatik eta euren lanak gorputzarekiko eta mugimenduarekiko daukan harremanarengatik. Horrek guztiak beraien praktika eskultorikoa performancearen arlora hurbiltzen du, eskultura bizidunen gisara. Hain zuzen ere, gorputzarekiko eta mugimenduarekiko hurbiltasun horrek eraman ditu eskultore hauek performancean edo dantza garaikidean diharduten artista eta kolektiboekin elkarlanean jarduteko modu berriak esploratzera, piezekin elkarrizketa berriak sortzera gonbidatuz. Erakusketak iraun bitartean, Tripak Sahatsa Jauregiren piezan kolaboratuz eta Beatriz Setián, Antonio Menchen eta Maia Villot June Cresporen piezetan zuzenean arituko dira aretoan eskulturak aktibatzen.

Esku-hartze horiez gain, programa publikoak honako jarduera hauek barne hartuko ditu: *Arte-makina*, arte garaikideko ikastaroa, artistek emana; bisita-solasaldiak; zine-programa; irakasleei zuzendutako ikastaroa, eta Feldenkrais metodoaren aldizkako eskolak. Azken horiek erakusketa-aretoan bertan Sirah Badiola eta Paula Rodriguez hezitzaile somatikoek eskainiko dituzte.

Euskal eskulturak egun bizi duen momentuari zuzendutako begirada bizi hau Olatz Otalora artistaren lanarekin osatuko da. Erakusketaren komisarioak gonbidatuta prozesuaren dokumentazioa ehunduko du, erakusketan biltzen diren proiektuak eta Tabakalerak artistei babesa emateko eskaintzen dien beste ekimen batzuk lotzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Laura Vallés Vílchez komisarioari artisten arteko kolaborazio berriak antolatzeko egin duen lan eskergagatik eta erakusketa honetarako propio sortu diren lan berriengatik, baita proiektuan parte hartu duten artista guztiei ere.

Tabakalera
Donostia
2024ko otsaila

Lárruak
eta izurrak

Nora Aurrekoetxea
June Crespo
Yael Davids
Iman Issa
Sahatsa Jauregi•Tripak
Kimia Kamvari
Lúcia Koch

Larruak eta izurrak ————— Nola egiten da ildoa? Nola marraztu ildo bat, egin ahala azkar bagoaz, urrutira bagoaz, baina beti ildoak proposatutako noranzkoan? Isabelle Stengers filosofoak «Berotasuna eta buru-argitasuna. Ezarpenaren betebeharrak»¹, hitzaldian azpimarratu bezala, ildoan harrapatuta gaude. Hala ere, gure intuizioek, abstrakzioek edo espekulazioek ildo bat egiteak, berez, ez du esan nahi zerbait amaitu denik, ildo horretatik ihes egin daitekeela onartzen dela baizik. Orduan, «nola» galderak bere denborazkotasuna eta intentzionalitatea zabaltzen ditu: Ildo bat «noiz» egin? «Zertarako» zulatu, garamatzan norabidea maiz zalantzazkoa denean?

Ildoaz hausnartzea ez da lan erraza, baina funtsezkoa da, ordea. Ia hamarkada batez nirekin daramadan gogoeta da. Baliabideaz haraindiko, jakintza diziplinarraren autoritateaz haraindiko ezagutzarekiko konfiantzaz eta konpromisoaz galde egitea dakar berekin. Hala ere, «amain emateak» susmo txarra ere badakar: ez jakitearen kezka. «Ez jakiten» ikasteko, ildoan zehar probatu behar da galdera. Adi egoten ikastea, arretari eustea, ildotik ihes egin ahal izatearen konfiantzarekin, hori da *Larruak eta izurrak* erakusketa honetako praktika artistikoez probatzen dihardutena; erakusketa egitearen zereginak berak aurre egiten dion hori da gainera. Labur esanda, saialdi kuratorial honek hauxe planteatzen du, ikaskuntzarako gure baldintzak eta prozesuak «ez jakiten» ikasteko konfiantzara bideratzea, berriro ikasten ikasteko: jakin-nahiaz, arretaz eta atseginez hezteko modu bati lehentasuna ematea, non forma ez datorren materiaren aurretik.

Praktika eskultorikoak gorputzaren ezagutzarantz hartu du bidea gizakien, animalien eta makinaren munduetan, eta hortik abiatuta, erakusketa honetan ikusgai dauden eskulturen, instalazioen eta gailuen aniztasunak berreskuratu egin du ukimenarekin ezarritako lotura irmoa, laztan moduan edo ildoarekiko pultsio baten formalizazio moduan, hau da, arreta, intentsitate eta sakontasun jakin

1 Isabel Stengers, «Fervor y lucidez. Las obligaciones de la instauración» (Berotasuna eta buru-argitasuna. Ezarpenaren betebeharrak), *Concreta En Línea*, 2017: <http://editorialconcreta.org/Fervor-y-lucidez-Las-obligaciones>

bati nola, noiz eta zertarako eutsi pentsatzearekin, ziurgabetasunari aurre egin ahal izateko.

Bizi garen mundu konplexu honetako indarkerien ulertezintasunaren, apatiaren eta desadostasunaren aurrean premiazkoak ikusten dira ikasteko, bereizteko eta lankidetzan aritzeko beste modu batzuk. Horregatik, zaintza eta indarkeria, eskulturaren logikei atxikiak, ahaidetasunak ezartzeko modu gisa ageri dira oraingo honetan, metala, hormigoia, erretxina, artilea, odol-hautsa, kaseina, kristala edo larruazala bezalako bizitasun handiko materien bitartez. Izan ere, materia horien bitartez aztertzen dituzte egungo ondoeza eta larrialdiak erakusketa honetako parte-hartzaileek.

Nora Aurrekoetxea



Nora Aurrekoetxea
Erdibitu, 2023
Kortesia: Galería Juan Silió, Madrid

Nora Aurrekoetxeak (Bilbo, 1989) dioenez, «bihurgune bat habaila bat da, errepide bat, oihala tolestea da». Aspaldidanik, maitasunaren erradikaltasunaz arduratzen da, euskarak ez duen esamolde horretaz: *fall in love, tomber amoureux* (maitasunean erortzea), aitzitik, indarkeriaren kontraesana pizten duela kontuan hartuta. Erortzeak, amiltzeak, inertiak² gure babesa behar du. Nola babestu oinaze batetik laguntza eskatu baina oraindik ordainik jaso ez duenean? Eskultorea prestakuntzaz, Aurrekoetxeak proposatzen dizkigun piezek, *KAI*AK eta *Erdibituk* (2023) Rijksakademie berriki ginek eta

2 Vera Martín Zelich, Nora Aurrekoetxeari buruz, *Kurba* erakusketa dela eta, Raccon-en, Hospitalet de Llobregat, 2023.

ikusgarritasuna eta ikusezina banantzen dituzten material bigunetan inspiratuek larru bihurtzen dute beren izurra: hormigoizko olanek, toallek eta errefortzu-barrek eszena bat osatzen dute. Etzanik edo tente, frikzioa sortzen dute, pultsio bat KAIA³ eta Erdibitu artean: erditze bat, irudi bat hedatzen da, zer gertatu ote da haien artean? Kontaktuz blaituta landutako egitura zehatz hauek interdependentek dira, elkarren beharra dute, eta horrela eusten diote elkarri.



Iman Issa
Self-Portrait (Self as William S. Burroughs),
2019
Kortesia: Rodeo Gallery, Londres


Iman Issa

Aitzitik, Iman Issa (Kairo, 1979) bere barnera biltzen da. Issari ez zaizkio interesatzen obra bat begiratzen duenaren itxaropenak eta interpretatzeko haren nahia; ez du azalpenik eskatzen, inplikazioa baizik. Susan Sontagek *Contra la interpretación* liburuan ohartarazi bezala, Issa ez da fidatzen gure ahalmen mimetikoaz, hau da, errepresentazioaz. Horregatik, *Proxies, with a Life of Their Own* (2019-gaur egunera arte) lanean, autorretratu batzuk aurkeztu ditu, aldi berean beste figura batzuen erretratuak direnak, tartean Alenka Zupančič, William S. Burroughs eta Christa Wolfena. Eskultura hauek, beren tituluek adierazten duten bezala, bizitza propioa

dute. Artefaktuen bizitzak eta museoen testuinguruetan gehiegizko bitartekaritza aurkezteko dituzten moduak

3 Kaia bere ilobaren izena da ere, eta horregatik eman dio izenburu hori piezari, harekin duen interakziotik sortua baita proposamenak biltzen duen hausnarketa.

dira Issaren aztergaia. Argazkilaria prestakuntzaz, susmo batek kezkatzen du bera, alegia «obra bat gai ez izatea bere testuingurua kontrolatzen duela baieztatzeko (bere kabuz eta bere sortzaileen edo kuradoreen laguntzarik gabe) eta bere harrerarako bitartekoak definitzeko»⁴, aitzitik, argazkietatik, antza, espero den zerbait. Argazkien aurak ildoak egiten du, azkar doa, baina, betirako bere errepresentazioan, ildo horretan bahitzen du bere ustezko benetakotasunak.



Yael Davids

Yael Davidsentzat (Tzuba kibbutza, 1968), hain zuzen, «bat plurala da beti»⁵. Performanceko artista honek oinazearen eta trebetasunen istorio partekatuen artxibo gisa ulertzen du gorputza. Gorputza tresna emantzipatzailea da gainera, «ez jakiten» ikasteko konfiantza hartu ahal izateko, berriz ikasten ikasteko. Hala ere, Issak susmatzen duenez eta Davidsek dioenez, «erakunde artistikoak gehiago bideratuta daude artefaktua zaintzera gorputza zaintzera baino»⁶. Abegi ona ez da bakarrik keinu atsegin bat, materia da ere bai. Hori dela eta, bere familiarekin (Andre van Bergen, Tara-Jay van Bergen) eta Centro de

Yael Davids
Horizontal- from image to movement, 2021
 Artistaren eta Migros
 Museum für Gegenwartskunst-en kortesia.

Acercamiento a lo Rural (CAR) gunearekin elkarlanean, eta zura eta beira bezalako materialak erabilita, artistak espazio bat sortzen du gorputzarentzat, non

4 Iman Issa, «I, the Artwork», Kunsthalle Wlen, 2021.

5 Yael Davids Laura Vallés Vilchezekin solasean, «Una es siempre plural», *Concreta*, n. 17, 2021.

6 Yael Davids, *I am going to be your last teacher*, Roma Publications, Amsterdam, 2023.

ehunak diren hormen ordezekoak. Gaztagintzako prozesuan soberan den artilea erabiliz (baztertu egiten da lehengai hau), Davidsek estera batzuk ehuntzea erabakitzen du, eta haiek erabiltzea Feldenkrais metodoa ikasteko beharrezko baldintzak sortzeko, eta esperientzia etiko eta estetiko bat eratzeko jasangarritasunaren eta arnasketaren politiken inguruan. Moshé Feldenkrais ingeniari eta fisikariak sortutako metodo hau, introspekzioan eta mugimen-askatasunean oinarritua, aldizka entseatzen da aretoetan, gorputzaren lurraldeak induskatuz eta intimidazioz eta egitura trinkoz beteriko esperientzia horien atzean dauden istorioak eta gatazkak mobilizatuz. Horrela, Tabakalera eskola bihurtzen da ikaskuntza-sistemak, Davisek alabarekin erabilitakoak tartean, eta -testuinguruak indartzera bideratutako metodo honetan ezagun diren Sirah Badiola eta Paula Rodríguez hezitzaile somatikoek eskutik.



Sahatsa Jauregi • Tripak
Azpitik doaz, 2024
Artistaren kortesia

Sahatsa Jauregi

Sahatsa Jauregik (Itaparica, 1984) proposatzen duen begiradan metalaz baliatzen da beste egitura astun bat definitzeko, beste gorputz batzuekin, hau da, Andrea Berbois, Maite Mugerza, Marina Suárez eta Natalia Suárezek osatutako TRIPAK konpainiakoenekin izandako bizipenen emaitzaz sortua. Gorputz horien eskura dagoen eskultura-sistema

makinizatu honek, atze-oihal gisa ez ezik, dramaturgia bateko figura gisa ere balio du, erreminten, berunaren, izaki protesikoen, armen eta gerren irudiak altxatzen. Hala, altxaketa hori eskulturaren eremutik haratago doa, adiskidetasunak eta parte hartzeak materia gauzatu

aurreko konfiantza-sistema bat sortzen duten eszena bihurtzeko. Jauregiaren ustez, «oso garrantzitsua da objektu bakoitzari erreparatzea; ia jarrera animista bat izatea bezala da, non zu ez zaren objektu horretaz gehiago dakien norbait»⁷; izan ere, oraingo honetan, eta lankidetzeta eta interdependentziako testuinguru batean, emakume horiek elkarri entzuten diote indarkeria bisual bat sortzeko; bitxitasun honen dramatizazioa hiru aldiz egingo da: erakusketari hasiera ematen zaionean, bere ardatzean eta amaiera emateko.



June Crespo

June Crespok (Iruñea, 1982) *Core* (2021 eta 2024) berreskuratu du, altzairuzko bidaien enkofratuetatik abiatuta hormigoiz egindako eskultura-multzoa. Maddi Barber zinemagilearekin batera erregistratu zuen prozesu eta bilakaera hori, material gordina eraztuetatik hasi eta, nahastu eta prozesatu ondoren, kontsolidatu arte. Hala ere, bai seriea bai filma, oraingo honetan aldatu egiten dira; bere «gordinak» zatitu eta berritxuratuta aurkezten dira. Artista honen ustez, materialaren barrualdean dago bere forma, eta bizitza horiek taupaka hasten diren momentu desberdinetan irudiak eta kristalizazioa-aukerak

agertzen dira. Bizitako esperientziatik desio bat sortzen da, ekintza eta keinu espekulatiboa materialtasun gogor eta sendoen arrastoetan edo ildoetan tartean sartzekoa;

June Crespo
Helmets, 2021 erakusketaren barruan Artium Museoan Estanis Comella eta Josu Bilbaoekin egindako ikerketa.
Argazki-kreditua: Roberto Ruiz

7 Sahatsa Jauregi, «Un viaje de euforia y desencanto», Metal Magazine, 2021: <https://metalmagazine.eu/post/sahatsa-jauregui>

apar-gomek parasitatutako materialtasunak dira; bigun eta atsegin ageri dira, ordea. Oraingo honetan, Beatriz Setián, Maia Villot eta Antonio Menchenen gorputz gonbidatuen mugimenduak formaren eragile eta erabilera-eskuliburu, tresna bilakatzen dira, erakusketan zehar bitartekaritza-lana egiteko: plaza publiko gisa jarduten duten eskulturen dispositibo honen materialek bat egiten dute Tabakalerako arkitekturarekin, eraldatzeko duen gaitasun pedagogikoan tartean sartzean.



Lúcia Koch
Sans fin, 2022
Kortesia: Carlier | Gebauer Gallery, Berlin

Lúcia Koch

Lúcia Kochek (Porto Alegre, 1966) ere oroimenaren jaria kortasuna eta arkitekturaren sendotasuna konbinatzen ditu, giro bat inguratu edo definitzen duena arretaz behatuz. Eskulturaren, instalazioaren eta argazki-irudiaren artean, denboraren berezko bilakaerarekiko sentikorrak diren espazio iragankorrek eraikitzen ditu artista honek. Joko etereoak,

oraingo honetan lurrean urrutako odol gorri zindatzen direnak. *Sans fin* (2022) lana erakusketara iristen denean soilik hedatutako hari batetik esekitzen da. Aurora Fernández Polancok hau bera izan litekeen beste leku batean idatzi zuen bezala: «izurrak bildu egiten du: esplikatatu eta esplizitu egin baino, inplikatu egiten du. Eta izurraren kizkur horietako batek ekoizpen-baldintza materialak, bizimoduak, erabilerak, eta munduan bizitzeko beste modu batzuen proposamenak sartzen ditu tartean»⁸.

8 Aurora Fernández Polanco, «Ensayar, dar a ver. Desplegar» Bulegoan eta Azkuna Zentroan (ed), *El ensayo de la exposición (1977-1997)*, Concreta Textos, Valentzia, 2024.



Kimia Kamvari

Kimia Kamvari
Gáv, 2024
Artistaren kortesia

Hausnarketa eder horrek, ibilbide honetan, Kimia Kamvarira (Kolonía, 1986) garamatza. Teheranen bizi ondoren (12 milioi baino gehiagoko metropolia) Astigarretara (20 biztanle baino ez dituen herrira) iritsi zenean logura-

aldi batean sartu zela gogoá du: «loaren eta beilaren artean dagoen egoera»⁹, heriotzaren atariko antzeko bat izan zitekeena, begirada azken aldiz tartean den momentu hori. Beharbada, horregatik, Kamvariren ustez, «erregistratzen den irudi oro hil osteko forma bat da», eta lotura handia du ildoaren ideiarekin, muga eta indarkeria gisa hartuta. «Muga ingurunea da, munduarekin dugun lotura, alegia. Bilaketa bat hasten dugunean muga bat gaínditu behar dugu, eta horrek esan nahi du ulertu egin behar dugula, gure egin behar dugula». Gure orainaldi global eta zaurituaren premiekin duen inplikazioan, argiarekiko sentikorra den zeluloideak argazki batzuk itxuratzen ditu, non ganaduaren bizkarra nahastu egiten den inguruan dituen mendi-hegalekin, halako logura batean, eta horrek seinalatzen du bere bilakaera. Halaber, esnezko aizto batek Tabakaleran zehar zabaltzen den odol-hautsez egindako eskultura bolumetrikoa osatzeko tresna gisa balio du.

9 Kimia Kamvari, «Gogoratu hegaldia, txoria hilkorra da», *Nature Change*, Cristina Enea Fundazioa, Donostia, 2020.

Larruak eta izurrak ez da erakusketa isolatu bat, elkarri lotutako gertakarien eta egoeren sistema bat baizik, eta ildoari buruzko galderatik mugak eta definizioak negoziatzen ditu, jakintza diziplinarraren autoritateaz haraindi. Kamvarik dioen bezala, «hizkuntza muga gisa ulertzen badugu eta munduaz dugun ezagutza ezagutzen ditugun hitzetara mugatuta badago, orduan hizkuntzarik eza mugarik eza bezala uler daiteke, non gauzen nozioak hitzetatik harantz doazen». Antzeko zerbait gertatzen da ingurunetik harantz doazen praktika artistikoekin. Ezagutza-fabrikek sustatzen duten transdiziplinarietatea, oraingo honetan Tabakalerak dakarkiguna esaterako, sintoma garaikidea da, itotzen eta inguratzen gaituzten krimenen utzikeriaren eta axolagabekeriaren aurrean agertzen dena. Gero eta ukaezinagoa da ezagutza diziplinarra ikuspegi holistikoaren faltan dagoela eta, aldiz, arlo jakin baten barruko gaitasun edo irakasbide anitzek eskaintzen dutela elkarrekin nahasten direnean.

Horregatik, esplorazio kuratorial kolaboratibo eta partekatu honetan Olatz Otañorak jaso du bere testigantza berezia inplikazioa lehenesten da esplikazioaren aurretik, arreta besarkatzen da errepresentazioaren aurretik, kontraste bidez jarduten da, eta ez oposizio bidez, zeren eta, Terry Eagletonekin pentsatuz, agian horrela bakarrik eraiki ahal izango baitugu itzaropena optimismorik gabe, edo, Isabelle Stengersekin jarraituz gero, agian horrela bakarrik berreskuratu ahal izango dugu itzaropena amildegiaren mugetatik.

Laura Vallés Vílchez

NORA AURREKOETXEA
(Bilbo, 1988)

Erdibitu, 2023
Hormigoizko olanak eta toallak.
213 × 84 × 88 cm

KAIA, 2023
Hormigoizko olanak, toallak eta
errefortzu-barrak.
265 × 86 × 84 cm
Juan Silió Galeria, Madril

JUNE CRESPO
(Iruñea, 1982)

Corerako erabilera-eskuliburua,
2024

Dramaturgia: Beatriz Setién,
Maia Villot eta Antonio Menchen

Apar-goma.
46 x 185 cm, 58 x 155 cm,
29 x 155 x 58 cm
Ekoizpen berria

Ikerketak honako obra hauekiko
elkarrekintza barne hartzen du:

Izenbururik gabe, 2024
Maddi Barber eta June Crespo
Core filmaren baztertutako bi
hartualdi, 2022
21:56 min
Performerra: Antonio Menchen

Core, 2022
Hormigoi armatua, pigmentuak
eta pintura.
45,5 x 66,20 x 138 cm

Core, 2022
Hormigoi armatua, pigmentuak
eta pintura.
40 x 138,7 x 138 cm

Core, 2022-2024
Hormigoi armatua, pigmentuak,
pintura eta apar-goma.
69 x 185 x 158 cm

CarrerasMugica Galeria, Bilbo

Core, 2021
Hormigoi armatua, pigmentuak eta
pintura.
49 x 170 x 100 cm

Core, 2022
Hormigoi armatua, pigmentuak
eta pintura.
62 x 120 x 87 cm

Ehrhardt Florez Galeria, Madril

YAEL DAVIDS
(Tzuba kibbutza, 1968)

*Breathing Comes as We Cry and
Face the Weight Against Gravity,*
2024

Zura, beira, artilea, oihala, metala
eta paperezko collagea.

8,3 x 8,3 m

Ekoizpen berria

Andre van Bergen, Tara-Jay van
Bergen eta Centro de Acercamiento
a lo Rural - CAREkin elkarlanean
aurkeztutako obra, eta Mondriaan
Fondsi esker gauzatutakoa.

IMAN ISSA
(Kairo, 1979)

*Self-Portrait (Self as Alenka
Zupančič),* 2020

3D inprimaketa, epoxi, akrilikoa,
pintura, metalezko zutoinak.

64 x 42,5 x 50 cm

*Self-Portrait (Self as William S.
Burroughs),* 2019

3D inprimaketa, akrilikoa, epoxi,
pintura.

43 x 26 x 39 cm

Self-Portrait (Self as Christa Wolf),
2022

3D inprimaketa, pintura, metalezko
zutoinak.

63 x 27 x 43 cm

Rodeo Gallery, Londres

SAHATSA JAUREGI
(Itaparica, 1984)

Azpitik doaz, 2024
Altzairua.

300 x 500 x 200 cm

Ekoizpen berria

KIMIA KAMVARI
(Kolonía, 1986)

Gâv, 2018-2024

Inprimaketa analogikoak paper
baritatu gainean.

Neurri aldakorrak

Gala, 2024

Hiltzeko aiztoaren erreplika, Zuaneta
baserria, Matxinbenta

Galalita.

35 x 4 x 2 cm

Capital, 2024

Odol-hautsa.

Neurri aldakorrak

Ekoizpen berria

LÚCIA KOCH
(Porto Alegre, 1966)

Sans fin, 2022

Ehun inprimatua eta aluminiozko
markoa.

243 x 500 x 100 cm

1 + 1 AP edizioa

Carlier | Gebauer Galeria, Berlin

JARDUERA PROGRAMA

Larruak eta izurrak erakusketak ikerketa publiko egiteko modu hauek proposatzen ditu: (1) inaugurazioan dramaturgiak eta performanceak aktibatzea, erakusketaren ardatz nagusi eta finissage gisa, (2) astean behingo Feldenkrais saioak, (3) bisita-solasaldiak, (4) Kameleoiak Gara! familientzako arte-lantegiak eta (5) arte garaikidera hurbiltzeko Arte-makina ikastaroa. Formatu horiek, alde batetik, erakusketa-proiektuaren esparru kontzeptuala kontuan hartzen dute eta, bestetik, Tabakalerako bitartekaritza-sailaren esparru instituzionala. Elkarrekin, publikoak, interes-komunitateak eta testuingururako eta aldaketarako gaitasuna sortzeko moduetan zentratzen dira.

SAHATSA JAUREGI / TRIPAK

Azpitik doaz aktibatzea

24/02/23 - 19:00

24/05/03 - 18:00

24/05/31 - 19:00

YAEL DAVIDS

Feldenkrais erakustaldia

Tara-Jay van Bergen-ekin

24/02/24 - 12:00

YAEL DAVIDS / SIRAH BADIOLA ETA PAULA RODRÍGUEZ

Asteartero 18:00 Feldenkrais saioak

JUNE CRESPO / BEATRIZ SETIÉN, ANTONIO MENCHEN ETA MAIA VILLOT

Core aktibatzea

24/05/04 - 12:00

24/06/01 - 12:00

OLATZ OTALORA

24/05/31 - 18:00

BISITA-SOLASALDIAK

24/03/06

24/03/20

24/04/10

24/04/24

24/05/08

24/05/22

18:00 ES - 19:00 EU

KAMELEOIAK GARA! Artea familian

24/03/16

24/04/20

24/05/18

11:00 EU

ARTE-MAKINA

Arte garaikidera hurbilketa

24/03/07 Isabel de Naverán ES

24/03/21 Ibon Salvador EU

24/04/25 Amaia Vicente ES

24/05/30 Ana Arsuaga (Verde Prato) EU

18:00

ESKERTZAK :

Artista parte-hartzaileak
Galería CarrerasMugica
Rodeo Gallery
Carlier | Gebauer Gallery
Galería Juan Silió
Galería Pedro Cera
Amelie Aranguren (CAR)
André van Bergen
Tara van Bergen
Maddi Barber
Estanis Comella
Josu Bilbao

Beatriz Setién
Filiep Tacq
Ibon Aranberri
Bulegoa
Bárbara Rodríguez Muñoz
Nuria Enguita
Rafael Barber
Xabier Salaberria
Jon Mikel Euba
Pablo Martínez
Nader Koochaki
Ane Rodríguez Armendariz



TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**

Andre Zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia

ERAKUSKETA-ARETOAREN
ORDUTEGIA

Asteartea-Igandea
12:00-14:00/16:00-20:00
Astelehenetan itxita

INFORMAZIOA

T. [+34] 943 218 855
E. info@tabakalera.eus

BULEGOA

T. [+34] 943 011 311
E. tabakalera@tabakalera.eus
tabakalera.eus